



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA ZIENTZIA FAKULTATEA

FACULTAD EN CIENCIAS QUIMICAS

Euskal Herriko Unibertsitatea

Kimika Zientzien Fakultatea

Kimikako Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

Organokatalisian Enamina Eraketari buruzko Azterketa Konputazionala

Egilea: Irati Ancisar Echenique

Zuzendariak: Ana Arrieta Ayestaran

Donostia, 2018ko iraila

GIPUZKOAKO CAMPUSA

CAMPUS DE GIPUZKOA

Pº. Manuel de Lardizabal, 3

20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

GIPUZKOA

LABURPENA

Ikerketa lan hau Donostiako Kimika Fakultateko Kimika Organikoa I sailean garatu da, Ana Arrieta irakaslea proiektuaren zuzendaria izanda. Proiektua ezagunak diren enamina konposatuen mekanismo bidea konputazionalki ikertzean datza. Horretarako erreaktibo desberdineko bi erreakzio bide aztertu dira, non katalizatzaile organikoa L-prolina den.

SUMMARY

This research project has been developed at the Organic Chemistry I Department of the Faculty of Chemistry in Donostia, under the guidance of professor Ana Arrieta. The project is based on the computational study of the enamine formation mechanism. In this study, two reaction pathways with different reagents are analyzed, in which L-proline is the catalyst.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	8
1.1 KIMIKA KONPUTAZIONALA	8
1.2 ENAMINEN BIDEZKO ORGANOKATALISIA	12
2. HELBURUA	17
3. METODOAK	19
4. EMAITZEN EZTABAIDA	21
4.1 L-prolina eta azetaldehidoaren erreakzioaren ondoriozko enamina formazioa	22
4.1.1 1. OINARRIZKO ETAPA: ADIZIOA (A_N2)	23
4.1.2 2. OINARRIZKO ETAPA: ELIMINAZIOA-ADIZIOA.....	26
4.1.3 3. OINARRIZKO ETAPA: ELIMINAZIO INTRAMOLEKULARRA.....	29
4.2 L-prolina eta ziklohexenonaren erreakzioaren ondoriozko dienenamina formazioa	33
4.2.1 1. OINARRIZKO ETAPA: ADIZIOA (A_N2).....	33
4.2.2 2. OINARRIZKO ETAPA: ELIMINAZIOA.....	35
4.2.3 3. OINARRIZKO ETAPA: ADIZIOA-ELIMINAZIOA.....	39
5. ONDORIOAK	44
6. ANEXOAK: Informazio gehigarria	45
7. BIBLIOGRAFIA	83


1. SARRERA

1.1 KIMIKA KONPUTAZIONALALA

Kimika konputazionalaren helburua molekulen ezaugarri estruktural, energetiko eta erreaktibotasuna kalkulatzeko datza. Orokorrean, ikerketa konputazionalak atomoen eta molekulen arteko energia eta estruktura erlazionatzen dituzte. Halaber, kimikariek eskuarki erabiltzen dituzten kontzeptuak kuantifikatzen dituzte, hala nola, lotura ordena, karga elektrostatikoa, elektrozaletasuna, nukleozasetasuna, aromatizitatea etab. Laborategian sintetizatzen diren molekula askorentzat baliozgarriak diren kontzeptuak dira.^[1]

Estruktura molekular jakin bati dagokion energia kalkulatzeko (denbora alde batera utzita), mekanika molekularreko (*MM, Molecular Mechanics*) metodoak erabili daitezke. Kalkuluaren abiaduran oinarrituz metodo hauek oso azkarrak dira baina lotura osaketak/apurketak gertatzen diren prozesuak ikertzeko ez dira erabilgarriak. Hori dela eta, ez dira lan honetan erabiliko. Mekanika kuantikoaren (*QM, Quantum Mechanics*) erabilera askoz orokor eta zehatzagoa da, nahiz eta aipatutako metodoekiko hurbilketa garestiagoa izan. Denborarekiko independenteak diren kalkulueterako metodo hauek Schrödinger-en ekuazioaren ebazpenean oinarritzen dira. Adierazpenik sinpleena $H\Psi = E\Psi$ da, non H Hamiltonen operadorea den, energia zinetikoaren eta potentzialaren batura, Ψ uhin funtzio molekularra den eta E energia izanik. Matematiketan, funtzional bat, funtzio bat da zeinen argumentutzat beste funtzio bat den: $h = g [f(x)]$. Beraz, denboraren mendekotasunik gabeko Schrödinger-en ekuazioan esan daiteke energia uhin-funtzioaren funtzional bat dela : $E = E [\Psi(x)]$ non x elektroien koordinatu espazialak eta spinarenak diren. Bestaldetik, energia, dentsitate elektronikoaren funtzional bat bezala ere defini daiteke: $E = E [\rho(r)]$, non ρ dentsitate elektronikoa eta $r = (x, y, z)$ koordinatu espazialak diren. Energiaren tratamendu honek Dentsitatearen Funtzionalaren Teoria (*DFT, Density Functional Theory*) osatzen du. DFT da lan honetan erabiliko dena, zehaztasun handi eta kalkulu abiadura azkarrarengatik.^[2]

Erreakzio kimikoak errektiboak (R) produktuetan (P) transformatzen diren prozesuak dira trantsizio egoeretatik (TS) igaroz, bai eta batzuetan artekarietatik (INT) igaroz ere. Erreakzio bat zuzenean errektiboetatik produktuetara doanean trantsizio egoera bakar batetik pasaz, erreakzio kontzertatua deritzo (Irudia 1A). Gutxienez artekari bat sortzen denean, berriz, etapak dituen erreakzioa da. Berez, etapak dituen erreakzio oro erreakzio kontzertatuen kateamendu bat dela kontsidera daiteke (Irudia 1B). Aktibazio energiak (E_a), trantsizio egoeren energiak errektiboen edo artekariaren energiakin lotzen dituzte. Erreakzio energiak (ΔE_{rxn}), berriz, produktuen energia errektiboetikiko lotzen du.



Irudia 1. Erreakzio kontzertatua (A) eta pausoka gertatzen den erreakzioa (B).

Kalkulu termodinamikoaren bitartez, barne energia energia askean bihurtu daiteke tenperatura konkretu batean: $E \rightarrow E(OK) \rightarrow G(T)$. Honi esker, Eyring-en ekuazioaren bidez erreakzioaren abiadura konstanteak kalkula daitezke.

Erreakzioaren errektiboak, artekariak eta produktuak energiaren minimo lokalak dira eta gradientearen zero puntua bezala ezagutzen dira. Zenbait funtzioetan aldagaia $y = f(x)$ modukoa denean, maximoa (gure TS-aren baliokidea) eta minimoa (erreakzio koordinatu batean R, INT eta P) bereizgarriak dira, puntu horretan hauen lehenengo deribatua nulua delako: $y' = f'(x_0) = 0$. Horrela, N-aldagai dituen molekula batean, adierazpen baliokideak zero gradienteko puntu geldikor bat ematen digu:

$$\left| \vec{\nabla} E(x_i) \right| = \left(\sum_{i=1}^N \left[\frac{\partial E}{\partial x_i} \right]^2 \right)^{1/2} = 0 \quad (1)$$

Lan honetan zehar, egitura bat optimizatutzat hartuko dugu gradientearen zero puntu bat lortzen dugunean edota nabarmenki txikia denean.

Nola bereiztu minimo lokalak (R, INT, P) eta trantsizio egoerak (TS)?. Horretarako molekula bat osziladore harmoniko baten energia potentzial minimoko analogotzat har dezakegu: $E = (1/2) kx^2$, non k loturari dagokion konstantea den eta x kontuan hartu dugun koordinatua. Gure $y = f(x)$ aldagaia duen funtziora bueltatuz, gogoan izan puntu geldikor batean $y' = f'(x_0) = 0$ betetzen dela eta puntua minimo bat bada $y''(x_0) > 0$. Molekula baten kasuan, energiaren bigarren deribatua koordinatu estrukturalekiko positiboa izango da:

$$\frac{\partial^2 E}{\partial x_i^2} > 0 \quad \text{denerako } i = 1, 2, \dots, N \quad (2)$$

Hau izango da lanean zehar egiaztatuko den datua errektiboekiko (R), produktuekiko (P) edo artekarietako (INT) lotuta dagoen estruktura bat optimizatzen denean.

Trantsizio egoeren (TS) kasuan, kontuan izan behar da aztertzen ari den errektio koordinatuaren maximoak direla. Aldagai baten funtzioetan, maximo bati lotutako zero deribatuaren puntuak bereizi egiten dira, izan ere, $y''(x_0) < 0$. Era berean, TS batean, ondokoa beteko duen aldagai bakarra (bat soilik) existitzen dela behatu dezakegu:

$$\frac{\partial^2 E}{\partial x_i^2} < 0 \quad (3)$$

Osziladore harmoniko sinplearen ereduaren barnean, energiaren bigarren deribatua lotura-konstantearekin bat dator:

$$\frac{\partial^2 E}{\partial x_i^2} = k \quad (4)$$

Honez gain, gogoan izan beharra dago osziladorearen frekuentzia (ν_i) eta dagokion lotura-konstantea lotuta daudela hurrengo ekuazioaren bidez:

$$\nu_i = \frac{1}{2\pi} \sqrt{\frac{k_i}{\mu_i}} \quad (5)$$

non μ_i loturetako bi espezie osziladoreen masa murriztua den : $\mu_i = m_A m_B / (m_A + m_B)$. Ekuazio hauen [(3)-(5)] arabera, loturen osaketa/apurketa-ri erlazionatutako frekuentzia TS batentzat, zenbaki imaginario bat izango da $k_k < 0$ da eta. Beraz, NIMAG parametroa frekuentzia imaginarioen kopuru bezala definituz gero, trantsizio egoera bat ezaugarritzen da bere NIMAG=1 delako. Erreaktibo, produktu eta artekarientzat NIMAG=0 beteko da derrigorrez. Lan honetan azertu diren puntu geldikor guztiak modu honetan karakterizatu dira^[3]. Gainera, erreakzio-koordinatua anbiguetasunik gabe finkatzeko, intrintseko koordinatua (IRC, *Intrinsic Reaction Coordinate*) erabili da TS-ekiko hurbileko R, INT edota P-en lotura ziurtatzeko.

Aurreko gogoeta guztiak hutsunean isolatutako espezieei buruzkoak dira, edo esan ohi den bezala, gas fasean dauden espeziei buruzkoak. Hala ere, erreakzio kimiko gehienak disoluzioan egiten dira. Ondorioz, disolbatzailearen eraginak ekuazioetan sartzen dira bi hurbilketen bitartez: gehienbat erreaktiboekin koordinatuko diren molekula disolbatzaile batzuk sartuz edo disolbatzailea forma implizituan tratatuz, hau da, ϵ permitibitate elektrikoaren *continuum*-tzat hartuz^[4]. Lanean zehar disolbatzailea *continuum* modelo bezala tratatuko da eta sortzen diren edo erreakzionatuko duten ur molekulak forma esplizituan tratatuko dira. Horrez gain, beste alderdi bat ere kontuan hartu da energia librea kalkulatzeko orduan: gas fasean ($\epsilon = 1$) egoera estandarra 1 atm den bitartean, disoluzioan ($\epsilon \neq 1$) egoera estandarra 1 M da. Hori dela eta, zuzenketak kontuan izan dira "Metodoak" atalean (lanaren 3.atalean agertzen dena) adierazita daudenak.

Metodo konputazionalak ebazpen experimental erraza ez duten erreakzio kimikoei buruzko xehetasun berriak zehazteko aukera ematen dute. Adibidez, lan honetan

enaminen formazio-erreakzioa aztertuko da. Etapa desberdinetan egiten den prozesua da, organokatalisi kobalentearen bidez erreakzioak azeleratzeko erabiltzen dena.

Ondorioz, guk aztertutako erreakzioa testuinguru egokian kokatzeko, hurrengo puntuan enaminen formazioa biltzen duen organokatalisiaren alderdia azaltzen da.

1.2 ENAMINEN BIDEZKO ORGANOKATALISIA

Organokatalisi terminoaren egilea McMillan izan zen (2000. urtean).^[5,6] Organokatalisia prozesu bat da, non, konplexu metaliko eta entzimatiakoak ez diren molekula organikoek erreakzio kimikoak azkartzen dituzten hauen estruktura kimikoa eta erreakzioaren energia askea aldatu gabe. Organokatalizatzaileak, beraz, konposatu organiko batentzat espero den konposizio kimikoa (karbonoa, hidrogenoa, oxigenoa, nitrogenoa, sufrea, fosforoa, silizioa, halogenoa) eta neurrizko pisu molekularra edukiko ditu. Organokatalizatzailea polimero funtzionalizatueta integratzen den kasuetan ez ditu aipatu berri diren ezaugarriak betetzen.^[7,8]



Organokatalizatzaileen abantaila esanguratsuenak beste organokatalizatzaileekiko, hala nola, entzimekiko edo konplexu organometaliko katalitikoekiko honako hauek izan daitezke:^[9,10]

- Orokorrean iturri desberdinetatik erraz lor daitezkeen sustantziak (aminoazidoak, alkaloideak) dira edo behin iturri hauetatik lortzen diren sustantziak transformatuz ere erraz lor daitezke.
- Sustantzia egonkorak dira eta beren erabilera ez da hezetasunetik kanpo, atmosfera inerteetan edo tenperatura baxuetan egin behar. Halaber, bere biltegitratzeak ez ditu baldintza bereziak eskatzen.
- Orokorrean hegazkortasun eta toxikotasun txikiko konposatuak dira.
- Kasu askotan, organokatalizatzaileen presentzian, gehiegizko konposatu enantiomeriko eta diastereoisomerikoen kopurua altua da.

Bestalde, jarraian aipatzen diren desabantaila nagusiak ere dituzte:

- Oraindik ez dira organokatalisirako zentzuko egitura-aktibitate modeloak garatu. Hori dela eta, esperimentu asko saiakera eta errore metodoen bitartez egiten dira.
 - Nahiz eta organokatalizatzaile kopurua handia izan, beren itxura estruktural basikoa konposatu familia txiki batean oinarritzen da: aminoazidoak (bereziki L-prolina, *vide infra*), alkaloideak (bereziki cinchona motakoak), tioureak eta eskuaramidak eta azido fosforikoak. Horrek, erreakzio kimiko espezifiko bakoitzarentzat organokatalizatzaile zehatz egokirik ez dagoela esan nahi du.
 - Lotura kobalenteak hautsi eta eratzen diren ziklo organokatalitikoan, erreakzio denborak oso luzeak dira (orduak, egunak...), karga katalitiko kopurua igo ohi da (%20-tik %30ra) eta errektiboetako bat disolbatzaile bezala jokatzera heldu daiteke (zikohekanona, azetona etab.) presente dagoen kopuru handiagatik.
- Organokatalisi mota ezberdinen artean^[11], enaminen bidezko katalisi kobalenteak arreta handia deitu du. ^[12,14] Enaminak nukleozale moldaerazak dira ^[15] eta beraien erabilera sintetikoa agerikoa jarri zen ^[16] organokatalisia tresna erabilgarri eta kontzeptualki finkatu bezala garatu baina lehen. ^[12]


Organokatalizatzaileen artean, historikoki eraginkortasun, enantiokontrol, eta espektrio zabaltasun handiena izan duen lehena L-prolina izan da. ^[17] Hain zuzen ere, nahiz eta aurrekari batzuk egon, ^[18,19] 2000. urtean Barbas eta List-ek ^[20-22] L-prolinaren aukerak jakinarazi zituzten. Erreakzio aldolikoetako katalizatzaile eraginkorra da L-prolina, I motako aldolasen baliokide minimalistatzat ere hartu daitekeena. Gerora List-ek Mannich-en erreakziora hedatu zuen kontzeptu hau. ^[24,25] Halaber, enaminen bidezko katalisia Michael adizio konjokatueta hedatua izan da. ^[11,26] Prozesu guzti hauetan, mekanismo orokorra, halabeharrez sinplifikatuta, 1. eskeman laburki adierazita dago. **1** organokatalizatzaileak (L-prolina edo analogoa) **2** konposatu karboniliko batekin erreakzionatzen du etapa batzuen ondorioz **3** enamina eta ur molekula bat sintetizatzen du. Enamina honek **4** bezalako konposatu elektrozaleekin (aldehidoak, zetonak eta iminak) erreakziona dezake edota Michael motako elektrozaleekin **7** (nitroalkenoak edo konposatu karboniliko α,β -asegabeak) **5** eta **8** iminio motako artekariak eratzeko, hurrenez hurren (1. eskema).



$X=O$ (Reacción aldólica); NR'' (Reacción de Mannich)
 $EWG=NO_2, COR''$ (Reacción de Michael)

1.eskema. Prolina edo bere deribatuetatik eratorritako enaminek katalizatutako erreakzio aldoliko edo Mannich motako (A) edo konjokatuen (B) eskema sinplifikatua.

Esandako artekariak berehala hidrolizatuak dira **6** aldol-Mannich edo **9** Michael aduktoak, **1** katalizatzailearekin batera, izan ere, azken honek hasiera emango die berriz **A** eta **B** ziklo katalitikoari. Era berean, antzeko ziklo katalitiko batek enaminen bidezko Diels-Alder moduko erreakzioak eman ditzake.^[27] Erreakzio hau MacMillan eta Barbas III-k^[28] beren bertsio katalitikoan deskribatu zuten. Kasu honetan **11** enamina artekaria **10** zetona α,β -asegabe (ziklikoa edo ez) baten bitartez osatzen da eta **12** alkeno (hobe π -urria bada) baten moduan jokatzen du prozesu kontzertatu baten edo etapen bidez. Prozesu honen ondorioz beste **13** enamina osatzen da eta honen hidrolisiak **14** ziklohexanona konposatuaren formazioa dakar **1** organokatalizatzailearen birsorkuntzarekin batera (2.eskema).




2.eskema. 1 enaminen bitarteko Diels-Alder erreakzio organokatalitikoaren eskema sinplifikatua.

Gure ikerketa lanean erabilgarriak ^[29] diren L- eta D-prolina ezberdinak sortu ditugu erreakzio aldoliko^[29,31] eta konjokatueta^[32] organokatalizatzaile^[30] bezala erabili direnak, baita polimerizazio erreakzioetako eraztun irekieretan ere.^[33] Duela gutxi konposatu hauek eragiten duten ziklazio organokatalitiko mota berri bat argitaratu da, alkaloide (+)-pancracinaren sintesiari aplikatu zaiona.^[34] Polimerizazio organokatalitikoaren erreakzioa salbuespentzat hartuta, gainontzeko erreakzio guztietan enamina artekaria espezie nukleozalezat hartu zen, 1.eskeman adierazita dagoen **3** artekariaren jokaera antzekoarekin. Enamina artekari hauek egile ezberdinengatik ikertuak izan dira, haien artean, List ^[35] eta Gschwind-engandik ^[36] ikertuak X izpi eta RMN karakterizazioen bidez. Gure ikerketa mekanistiko eta esperimentalak ^[29-34] erreakzio hauen enantioselektibitatearen jatorrian zentratu zirenez, gure ikerketa konputazionalak C-C loturen formazioen etapetan oinarritu

ziren. Prozesu kontzertatu hauek 1. eskeman azaltzen diren TS_{cc} eta TS'_{ec} trantsizio egoeretan zehar igarotzen dira. Hala ere, nahiz eta ikertutako erreakzioetako^[29-34] estereokontrolaren jatorria behar bezala azaldua izan, erreakzioen, karga katalitiko altuen eta **2** motako (konposatu karbonilikoak) edo **10** motako (konposatu karboniliko α,β -asegabeak) erreaktiboan gehiegizko denbora luzeak argitzea falta zen 1 eta 2 eskemetako erreakzioak osatzeko. Erreakzio organokatalitiko hauetako eragozpen hauez gain, enaminen formaziorako etapa bidea egokia zela ondorioztatu zen. Enaminen formaziorako **3** eta **11** etapak ikertu nahi izan genituen esandako prozesuen oinarritzko etapa mugatzailea identifikatzeko. Geroagoko DFT ikerketa konputazionalan, **5** eta **8** iminio motako (1. eskema) edo **13** motako (2. eskema) enaminen hidrolisi prozesuak aztertuko dira. Horrela, ziklo katalitikoak osatu eta guztiz ulertuko dira noizean behin enaminen bidezko organokatalisi prozesuen eraginkortasuna hobetzeko.

2. HELBURUA


Lan honen helburu nagusia, amina sekundarioak eta konposatu karbonilikoak jatorritzat dituen enaminen formazioa DFT metodo konputazionalen bitartez aztertzea da. Prozesu hauek 3.eskeman laburki azaltzen dira.



3. eskema. Lan honen helburu nagusia, enaminen bidezko organokatalisia.


Zehazki, lan honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- 1. 1a** L-prolina eta **2a** azetaldehidoaren erreakzioaren ondoriozko **3a** enamina formazioaren ikerketa. **2a** erreaktiboa kasurik errazena da aldol, Michael eta Mannich motako erreakzioetarako (4.eskema).



4. eskema. 1. helburuan adierazitako erreakzio ikertua.

2. **1a** L-prolina eta **10a** ziklohexenonaren erreakzioaren ondoriozko **11a** dienenaminaren formazioaren ikerketa. Erreakzio honek, enaminen bidezko Diels-Alder erreakzioetarako balioko du eredu gisa. Zetona zikliko α,β -asegabea erabiltzeak alderdi konformazionalak erraztea ahalbidetuko du, izan ere, **11a** dienamina nahitaez s-cis konformazioan egongo delako.



5.eskema. 2. helburuan adierazitako erreakzio ikertua.

3. METODOAK

Burutu diren QM kalkulu guztiak, Gaussian 09^[37] programa multzoaren bitartez egin dira. Erabili zen DFT metodoa B3LYP ^[38-40] izan zen, Grimme-k^[41] proposatutako D3 energia dispertsioaren zuzenketa kontuan hartuz. Gaussian funtzio bezala balentzia zatikatu (Split valence) metodoa hautatu zen, eskuarki 6-31G* bezala ezagutzen dena.^[42,43] Disolbatzailearen eraginak *continuum* polarizazioaren (PCM) metodoaren bitartez hartu ziren kontuan, Tomasiren taldearen^[44] bidez deskribatuak izan zirenak. Gas egoeratik (1 atm) disoluzio egoerarako (1M) urratsa 298 K-tan, jarraian agertzen den ekuazioaren bitartez gauzatu zen:

$$\Delta G_s^* = \Delta G_g^o - 1,91\Delta n \text{ (kcal/mol-tan)}$$

Non, ΔG_s^* 1M disoluzioaren energia askea den, ΔG_g^o 1 atm-ko gas fasean lortu den Gibbs energia askea den, eta Δn termino estekiometrikoa, trantsizio egoera baterako hurrengo balorea hartzen duelarik:

$$\Delta n_{TS} = 1 - \sum_i^{\text{erreaktiboak}} n_i$$

Hau da, oinarrizko etapa biomolekular batentzat $A + B \rightarrow [TS] \rightarrow INT$ modukoa.

$\Delta n_{TS} = -1$ eta disoluzioko aktibazio energia jarraian agertzen den moduan zuzendu zen:

$$\Delta G_a^* = \Delta G_a^o + 1,9 \text{ (kcal/mol-tan)}$$

Era berean, erreakzio energietarako Δn -k hurrengo balioa hartzen du:


$$\Delta n_{rxn} = \sum_i^{\text{produktuak}} n_i - \sum_j^{\text{erreatiboak}} n_j$$

$A \rightarrow B$ moduko oinarrizko prozesuetarako edo $A + B \rightarrow C + D$ moduko erreakzio orokorretarako ez zen beharrezkoa izan estandar egoerarako aldaketarik egitea, izan ere, kasu hauetan $\Delta n=0$ da, beraz, $\Delta G_s^* = \Delta G_g^o$.

Optimizazio prozesuak estruktura onargarriak sortuz egin ziren. Estruktura hauek erlazionatutako estrokturen ondorioz argitaratu ziren kartesiar koordinatuekin eta/edo GaussView 6^[47] interfaze grafikoarekin burutu ziren. Hasierako estrokturak PM6 metodo semienpirikoarekin optimizatu ziren aurretiazko bezala. Ondoren DFT B3LYP-D3/6-31+G** (gas fase) eta B3LYP-D3(PCM)/6-31G+** (disoluzio) metodoen bitartez beroptimizatuak izan ziren. Aukeratutako disolbatzailea toluenoa izan zen, polaritate baxuko hidrokarbuo aromatikoa, katalisiari buruzko ikerketa esperimental eta konputazionaletan maiz erabili dena.

4. EMAITZEN EZTABAIDA

Lan honen abiapuntua, enaminen formazioaren mekanismo bidea da edozein testuliburuan aurkitu daitekeena.^[48] Erreakzio eskema honetan (6.eskema) oinarrizko erreaktibo desberdinak dituzten bi bide desberdin planteatu dira, batean L-prolinak aldehido (azetaldehidoa) batekin erreakzionatzen duelarik eta bestean, berriz, zetona (ziklohexenona) batekin. Behin mekanismoak planteatuta, bide teoriko hauek eta bertan sortzen diren artekari, trantsizio egoera eta produktuak konputazionalki baieztatzea izan da helburu nagusia.



6.eskema. Enaminen formazioaren mekanismo bide teorikoa.

Eskemaren mekanismoa aminaren erasoarekin hasten da. Horrela, nitrogenoaren elektroio pareak talde karbonilikoaren karbonoan erasoko du **INT1** artekari zwitterionikoa eratuz. Zwitterion edo ioi dipolarra, elektrikoki neutroa den espezie kimiko bat da, karga positibo eta negatiboa dituen atomo desberdinetan. Erreakzio bidearekin jarraituz, azido-base oreka baten ondorioz alkoxido ioiak protoi bat irabaziko du eta amonio ioiak, berriz, galdu **INT2** artekari neutroa osatuz. Artekari honek ur molekula bat galdu dezake **INT3** iminio-karboxilato zwitteriona eratuz eta

[1,6] transposizioaren ondorioz neutroa den enamina osatuko da. Azken artekari neutroa bi modutan protonatu daiteke: oxigenoan edo nitrogenoan. Amina primario batek, aldehido edo zetona batekin erreazionatzen duenean, mekanismoaren azken pausoa imina protonatuak protoi bat galtzen du neutro bilakatuz. Hala ere, amina sekundarioa denean, positiboki kargatuta dagoen nitrogenoa hidrogeno bati lotuta dago eta kasu honetan molekula neutro bat lortzen da protoia α karbonotik galtzen delako enamina lortuz.


4.1 L-PROLINA ETA AZETALDEHIDOAREN ERREAKZIOAREN ONDORIOZKO ENAMINA FORMAZIOA

Enaminaren formazioa etapa bat baina gehiagotan egiten den prozesu bat da. Kasu honetan, lanaren helburuetan aipatu den bezala, **3a** enaminiaren formazioa **1a** L-prolina eta **2a** azetaldehidoaren arteko erreakzioaren ondoren emango da, ur molekula bat askatuz (4.eskema).

Jarraian sintesiko etapa bakoitza urratsez urrats aztertuko da erabiltzen eta sortzen diren errektibo, artekari, trantsizio egoera eta produktuen energiak ikertuz. Horri esker prozesu osoaren *E vs erreakzioaren koordenatua* diagrama osa daiteke. Bertan trantsizio egoeren energiak artekarietara aztertuko dira, aktibazio energia, (E_a), bai eta errektiboen eta produktuen arteko energia diferentzia ere, erreakzio energia (ΔE_{rxn}).

4.1.1 1. OINARRIZKO ETAPA: ADIZIOA (A_N2)

Prozesu osoaren lehenengo etapa adizioa da. Zehazki adizio nukleozalea (A_N2). Hala ere, L-prolina aminoazido bat denez, ez da ohiko A_N2 prozesua. Hasiera batean, amino taldeak nukleofiloaren papera beteko duela suposatu daiteke, baina, karboxilo taldeak protoia transferitu dezake karbonilo taldea jatorritzat duen alkoxidora, 7.eskeman ikusi daitekeen bezala. **INT1** artekariak, aldi berean, **INT2** amino-karbinol neutro artekaria osatzeko (1,3) edo (1,4') transposizioaren bitartez aldatu behar du, 7.eskeman ere adierazita dagoena. Azken artekari hau orekan egongo da hidrogeno lotura intramolekular bati esker.




7.eskema. Adizio (A_N2) prozesua. **INT1** artekari ezegonkorak zuzenean **INT2** artekari egonkoraren konformazioa hartzen du **TS**-tik igaro gabe

Lana oinarritzen den eskema behatuz, ikus dezakegu errektiboek erreaktionatzen dutenean sortzen den lehen artekaria **INT1** dela. Konputazionalki artekari horren presentzia baieztatu nahi izan zen baina oso ezegonkorra dela ondorioztatu zen, trantsizio egoera baina ezegonkorragoa, eta hori ezinezkoa da. Erreaktibo, artekari eta produktuak beti trantsizio egoerak baina egonkorragoak dira. Beraz, sortu eta berehala, zuzenean, **INT2** artekariaren konformazioa hartzen zuen trantsizio egoeretatik igaro gabe (7.eskema) . Hori dela eta ez zaio garrantzia handirik eman espezie horri mekanismo bidean zehar, ez baita batere egonkorra.

Erreaktiboek **TS1** lehenengo trantsizio egoera igaro beharko dute **INT1** artekaria osatzera iristeko, nahiz eta gero, **INT2** artekaria sortzeko ez den trantsizio egoeratik pasa behar. Azken fenomeno hau “beheranzko aldapa” (*Down hill*) deritzo.

Erreaktibo, trantsizio egoera, artekarien eta produktuaren energiak aztertuz, esan bezala, energiaren arabera diagrama osa dezakegu. Erreakzio bide bakoitza gas egoeran eta disolbatzaile batekin aztertu da, hori dela eta, bi koloreko diagramak behatu ditzakegu 2.irudian. Urdinez adierazitako bidea tolueno disolbatzailearekin egindako prozesua da, eta grisez, berriz, gas egoeran egin dena.



2.irudia. 2a azetaldehidoaren bitartez egindako erreakzio bidearen 1. etaparen perfil energetikoa. B3LYP-D3/6-31+G** teoria mailan optimizatutako geometriak. Barren balioak Gibbs energiak dira kcal/mol-tan (298 K) adierazita. Lotura-luzerak Å-tan daude. Parentesi artean adierazitako balioak gas egoeran eginda.


Mekanismo osoan zehar parte hartzen duten konposatu eta espezieen artean, errektiboek energia baxuena da. Hori dela eta 0.0 balioa egokitzen diegu eta beste espezieen energiak balio honekiko alderatuko dira. Errektiboek TS-rekiko duten energia diferentzia aktibazio energia da. TS-ren energia balioa altuagoa denez, diagramako barrera altuago kokatuko da egoera hau **1a**, **2a** eta **INT1** artekariak baina ezegonkorragoa dela adieraziz.

TS1 trantsizio egoeraren estruktura, 7.eskeman proposatu den mekanismoaren ondorioz sortutakoa da, N...C arteko 1.81-1.91 Å-ko distantziarekin, hau baita trantsizio egoeretan N-C^[49] lotura sortzera bultzatzen duen neurria. Halaber, **TS1**-en O...H-O interakzio argia ikusten da 1.40 eta 1.11 Å-eko distantziekin, hurrenez hurren (2.irudia).

TS1-en IRC analisiak alde batetik **1a + 2a** errektiboetara eramaten du, eta beste aldetik **INT1** artekarira, espero zen bezala. Hala ere, amonio-karboxilato artekari hau **TS1**-ekiko isoenergetikoa zela ikusi zen, eta optimizatu ondoren **INT2** amino-karbinol neutrora pasa zen zuzenean (2.irudia). Azken hau errektiboekiko 7.7 kcal/mol gainera dago disoluzio egoeran. **INT2** artekaria, hidroxilo eta karboxilo taldeen artean dagoen hidrogeno zubi baten ondorioz orekan dago. C-N arteko lotura distantzia 1.45 Å-koa da, non, guztiz osatu den lotura kobalentea dela ondorioztatzen den.

4.1.2 2. OINARRIZKO ETAPA: ELIMINAZIOA-ADIZIOA

Bigarren etapan ere, karboxilo/karboxilato taldeak parte hartzen du aurreikusitako mekanismoa aldatuz. Beraz, bi azpi-etapa desberdinetan bana daiteke, alde batetik uraren eliminazioa eta bestetik adizio intramolekularra. **INT2** artekariak eliminazioa jasatearen ondorioz, bigarren trantsizio egoera batetik igaroz, **INT3** sortuko da eta adizioaren ondorioz **INT4** (8.eskema).



8.eskema. Erreakzio bidearen 2. oinarrizko etapa. **INT2** artekaritik **INT4** artekaria osatzeko eliminazio-adizioa.

Hain zuzen ere, **INT2** amino-karbinol artekaritik aurrera, **TS2** trantsizio egoeraren estrukturak C...O atomoen arteko loturaren erlaxazioa erakusten du, 1.90-2.00 Å-eko distantziarekin, eta aldi berean O_a...H_b distantzia laburpenarekin. Laburtze hori, **INT2** artekarian 1.73 Å izatetik **TS2**-n 1.13 Å izatera pasatzen da. Ur molekularen eliminazio etapa honek 8.1 kcal/mol-eko aktibazio energia askea du, aurreko etaparen energia baina baxuagoa, nabarmenki.


TS2-en IRC analisiak alde batetik **INT2** artekarira darama, eta beste aldetik **INT3** iminiokarboxilato artekarira. Artekari honek, disoluzioan, 1.32 Å-eko C-N lotura luzera adierazten du eta **TS2**-an kalkulatu denarekiko hurbil dago, **INT2** artekari optimizatuaren estrukturan aurkitu denarekiko motzagoa izanik. Bestalde, **INT3** artekariak karboxilato taldearen orientazio argi bat erakusten du iminio taldearen

karbonoruntz (3.irudia), O...C-ren 2.81-2.92 Å-ko lotura distantziarekin. Orientazio honek adizio nukleofiliko intramolekular bat gertatzera bultzatzen du **INT4** artekaria eratzeko (barrera hautemangarririk gabe). **INT4** artekaria oxazolidinona bat da, pirrolidinaren eraztunarekin fusionatu den heterozikloa. Oxazolidinona hau sortzearen beste arrazoi bat, **INT3** artekariak joera zwitterionikoa izatea da. Izaera honek, adizio prozesua eragingo du. Karboxilatoaren oxigenoak elektrozalea den karbonoan erasoko du haien artean lotura sortuz eta eraztuna itxiz, **INT3** konposatua eratuz.

Nahiz eta **INT3** iminio-karboxilato artekariaren estruktura oso egonkorra izan (3.irudia), oxazolidinona **INT4** artekari neutroa 5.7 kcal/mol egonkorragoa da **INT3** artekaria disoluzio egoeran baino. Oro har, **INT2**→**INT4** etapa exergonikoa da, **INT4**, **INT2** artekaria baina 6.1 kcal/mol egonkorragoa izanik.

INT4 oxazolidinonaren formazioa zenbait kasuetan esperimentalki^[50] aurkitua izan da eta eztabaida ugari sortu da prolina-enaminaren sintesi bidearen inguruan. Zenbait egileek^[51] **INT3** eta **INT4** artekarien arteko oreka, ziklo organokatalitikoan “oreka parasittoa” bezala izendatu dute, izan ere, **INT4** molekula biziklikoa nahiko geldoa zen eta ez zuen enaminaren erreazio koordinatuan parte hartzen. Berriki, berriz, beste egile^[52] askok baieztatu dute oxazolidinona artekariak esandako erreazio koordinatuan parte hartzen duela. Gai hau hurrengo atalean eztabaidatuko da.

Aipatu bezala, **INT3** artekaria zwitterion bat da. Ezaugarri honek molekulen energiengan ere eragina du, eta horrekin batera, diagramako artekarien barren kokapenean. Artekariaren egonkortasuna gas fasean edo disolbatzailearekin desberdinak dira. Ioi dipolar bat dela kontuan hartuz toluenoz inguratuta dagoenean honen atomoek artekariaren ioiak egonkortzea eragiten du, diagramako barra jaitsiz (+7.3 kcal/mol) (3.irudia). Beraz, disolbatzailearen polartasuna gero eta altuagoa izan, artekaria gehiago egonkortuko da. Gas egoeran, berriz, ioi dipolarra izateak ez du eraginik.




3.irudia. 2a azetaldehidoaren bitartez egindako erreakzio bidearen 2. etaparen perfil energetikoa.

Diagramaren erreakzio bidea aztertuz, hirugarren artekaritik laugarren artekarirako saltoan zehar ez da trantsizio egoerarik sortu, zuzenean molekula **INT4** artekarian transformatu da esan bezala hau askoz egonkorragoa delako, beraz, mekanismoan zehar ematen den bigarren “beheranzko aldapa” da.

4.1.3 3. OINARRIZKO ETAPA: ELIMINAZIO INTRAMOLEKULARRA

INT3 iminio-karboxilato artekaria **3a** enaminarekin konektatzeko saiakerek ez zuten arrakastarik izan. Hala ere, **INT4** oxazolidinona artekari neutroa **TS3** trantsizio egoeratik igaro ondoren **3a** produktua osatu zen (4.irudia. 9.eskema). Funtsezko etapa hau IRC-ren bitartez baieztatu zen.




9.eskema. Erreakzio bidearen 3. oinarrizko etapa. **3a** produktua osatzeko eliminazio intramolekular prozesua.

TS3 estruktura aldez aurretik azetaldehidoaren metilora lotu den H_c protoiaren abstrakzio prozesu kontzertatua erakusten du $C_a \cdots O_d$ loturaren haustearekin batera, disoluzioan 2.62 Å-ko distantzia duelarik. Estruktura honek, beraz, 5 mailako 3 ziklo fusionatu ditu: pirrolidinaren eraztuna (aldu gabe mantentzen dena), oxazolidinonaren eraztuna (hausten ari dena) eta $O_d \cdots C_a - C_b \cdots H_c \cdots O_d$ sistema ziklikoa (H_c -ren abstrakzioarekin erlazionatuta dagoena). Horrek guztiak tentsio bat eragiten du, eta ez da harrizkoa etapa honi dagokion aktibazio energia askea 31.6 kcal/mol-ekoa izatea. Balio altu honek, erreakzioaren zinetikan ondorioak eragiten ditu, jarraian ikusiko direnak.

3a produktuarentzako kalkulaturako estruktura bat dator List-en taldeak^[51a] enamina konplexuetarako lortu zituen emaitza esperimentalekin eta **INT4** oxazolidinona baina 5 kcal/mol ezegonkorragoa da. Alderdi hau prozesu osoaren amaierako balantza energetikoan eztabaidatuko da. **INT3** artekariaren oxigenoak α karbonoaren hidrogeno bat bereganatuz, adizioa, azido karboxilikoa eratuko da,


honekin batera bizikloa osatzen zuen lotura apurtuz eta karbonoen arteko lotura bakuna lotura bikoitzean bilakatuz. Eliminazio eta adizioa, erreaktiboa 3. trantsizio egoera batetik igaroz emango da.

Azken etapa hau, aipatu den bezala, erreakzioa markatuko duen etapa da, izan ere, sintesi bide osoa aztertuz **TS3** trantsizio egoerak aktibazio energia (E_a) balio altuena du. Balio hori gero eta altuagoa izan, erreakzioaren abiadura motelagoa da, beraz, hori dela eta, erreakzio bide osoaren zinetika markatuko duena produktua sortzen deneko etapa izango da (4.irudia).




4.irudia. **2a** azetaldehidoaren bitartez egindako erreakzio bidearen 3. etaparen perfil energetikoa.

Organokatalisian, enamina ren formazioa, prozesu askoren beharrezko lehenengo etapa da, hasierako pausoa. Behin nukleozalea sintetizatuta, erresonantzia bidez karbonoan sortzen den karga negatiboak beste elektrozele batzuekin erreakzionatzeko aukera emango du organikako beste prozesu asko ahalbidetuz (10.eskema).



10.eskema. Enamina ren erresonantzia egiturak, ondoren elektrozele batekin erreakzionatzeko.

L-prolina eta azetaldehidoaren arteko erreakzioaren ondorioz deduzitu diren etapa guztiak elkartuz, erreakzio bide osoa (5.irudia) aztertu daiteke produktua, hau da, enamina lortzen den arte.



5.irudia. 2a azetaldehidoaren bitartez egindako erreakzio bide osoa, errektiboetatik, 1a eta 2a, produkturaino 3a. B3LYP-D3/6-31+G** teoria mailan optimizatutako geometriak. Barren balioak Gibbs energiak dira kcal/mol-tan (298 K) adierazita. Lotura-luzerak Å-tan daude. Parentesi artean adierazitako balioak gas egoeran eginda.

Erreakzio osoaren energia (ΔE_{rxn}) aztertuz, gas fasean egiten den prozesuan $\Delta E_{rxn}=+5.7$ da, eta tolueno disolbatzailearekin egiten den prozesuan, berriz, $\Delta E_{rxn}=+ 6.5$. Horrez gain, prozesu endoergikoak dira, hau da, energia (normalean bero moduan) xurgatzen duten erreakzio kimikoak dira. Hori, erreakzio bide osoaren energia balioa (ΔE_{rxn}) positiboa delako ondorioztatzen da: $\Delta E_{rxn} > 0$ (ez berezkoa). Diagrama aztertuz argi dago **TS3** trantsizio egoera prozesu osoaren (bai disolbatzailearekin, bai eta gas egoeran) zinetika markatzen duela, mugatzailea dela, bere aktibazio energia balio altuenarengatik. Gero eta tartea altuagoa izan, orduan eta erreakzio abiadura motelagoa. Hori dela eta, erreakzio denborak luzeak dira eta karga katalitikoak altuak.

Aipatu bezala, erreakzioa endoergikoa izateak, enamina tranpa energetikoa ez dela eta zikloak aurrera jarrai dezakeela adierazten du.


4.2 L-PROLINA ETA ZIKLOHEXENONAREN ERREAKZIOAREN ONDORIOZKO DIENAMINA FORMAIZIOA

Kasu honetan ere, enaminaeren erreakzio bidea etapa desberdinez osatuta dago. Oraingoan, lanaren bigarren helburu bezala aipatu dena, **11a** enaminaeren formazioa **1a** L-prolina eta **10a** ziklohexenonaren arteko erreakzioaren ondoren emango da, mekanismo honetan ere ur molekula bat askatuz (5.eskema).

Zetona batekin burutzen den erreakzio bide honetan ere, etapa guztiak aztertuko dira ondoren erreaktibo, artekari, trantsizio egoera eta produktuen energiak ikertuz E vs $erreakzioaren$ koordenatua diagrama osatzeko.

4.2.1 1. OINARRIZKO ETAPA: ADIZIOA (A_N2)


Prozesu osoaren lehenengo etapa, adizio nukleozalea (A_N2) da. Nukleozale bezala **1a** L-prolinak jokatu du, **10a** ziklohexenona elektrozaleari elektroik bikoitea emanaz eta lotura kobalentea osatuz. Behin erreakzioa emanda, **INT1'** artekaria sortuko da. Erreaktiboek **TS1'** lehenengo trantsizio egoera igaro beharko dute **INT1'** artekaria osatzera iristeko eta, jarraian, **INT2'** artekariaren konformazioa hartuko du. (11.eskema).



11.eskema. Adizio (A_N2) prozesua. **INT1'** artekari ezegonkorak zuzenean **INT2'** artekari egonkoraren konformazioa hartzen du TS-tik igaro gabe

Azetaldehidoa erabili den erreakzio bidean azaldu den bezala, erreaktiboen erreakzioaren ondorioz **INT1'** artekaria eratu beharko litzateke, baina kasu honetan ere, ziklohexenona erabiliz, konputazionalki kalkulatu eta ziurtatu zen artekari hau trantsizio egoera baina ezegonkorragoa dela. Aipatu den bezala, **INT1'** artekariak **INT2'** artekariaren egonkortasuna bereganatu nahi du, eta horregatik trantsizio egoera batetik pasa gabe azken honen egitura hartzen du. Hori dela eta ez zaio garrantzia handirik eman espezie horri mekanismo bidean zehar, ez baita batere egonkorra.

Erreaktibo, trantsizio egoera, artekarien eta produktuaren energiak aztertuz, esan bezala, energiaren arabera diagrama osa dezakegu. Hemen ere, gas egoeran eta disolbatzailearekin egin diren erreakzioak kolore desberdinekin adierazi dira 12.eskeman ikus daitekeen moduan. Urdinez adierazitako bidea tolueno disolbatzailearekin egindako prozesua da, eta grisez, berriz, gas egoeran egin dena.




